



## HONEKIN 'GIPIZKOA EZKONTZAK' AZOKAN

Tolosako ileapaindeak pasa den hilean hartu zuen parte Kursaleko azokan; «oso arrakastatsua» izan zela diote >2

TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO

# hitza



Asteazkena  
2007-12-05

VURTEA 1305.ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

## Sven Nys flandiarra izango da Nazioarteko Ziklokrosaren izarra

**ASTEASU** Ziklokroseko munduko txirindulari onenak lehenengo aldiz parte hartuko du lasterketan

**AURKARIAK** Faboritoak, besteak beste, Vanthourenhout eta Heule izango ditu aurrez aurre biharko proban >4



EAEren Tolosako ordezkariak, herenegun eginiko prentsaurrekoan. ESTI EZBIZA

## UDAL GOBERNUETAN «PARTE HARTZEA» ALDARRIKATU DU EAE-K

**TOLOSA** Ezker abertzaleak prentsaurrekoan salatu duenez, «osoko bilkuran ez dute eztabaidatu ere egin guk aurkeztutako mozioa» >3

## Ramon Lasa Esnaola Albizturko alkatea hil da gaixotasun baten ondorioz

**ALBIZTUR** 37 urte zituen eta Albizturko Herria plataformakoa zen; gaur elizkizunak izango dira eta herriak omenaldi xumea egingo dio aurretik >6



Talai dantzariak. NEREA URBIZU

## Gazte Taldeak 10. urteurrena ospatuko du bihartik hasita

**AMEZKETA** Auzolana, bazkaria eta areto futbol txapelketak egingo dituzte bihar egunean zehar >5



**o'baba**  
KALTEGIA

Kale Nagusia 45  
943 247 469  
Villabona

Razioak,  
otartekoak  
eta  
pintxoak

2006ko edizioan bezala, Honekin ileapaindegiko lankideak, Aitor Odriozola buru, Donostiako Kursaaletan ospatu zen 'Gipuzkoa ezkontzak' feria garrantzitsuan izan ziren.

## Aurten ere arrakastatsu

HARRIET BELLOSO

**P**asa den azaroaren 10 eta 11n, Donostiako Kursaaletan, Gipuzkoa Ezkontzak feria ospatu zen. Gipuzkoan antzeko ekitaldi gehiago antolatzen dira, baina Kursaaletakoa da garrantzitsuenak. Duela 7 urte izan zen lehenen edizioa, eta geroztik Espainiak diseinatzaile famatuena pasa dira bertatik. Datorren urtean edo 2009an ezkondu nahi duten bikoteentzako dago zuzenduta batez ere feria hau. Argazki dendak, lore dendak, arropa dendak, orkestrak, jateak eta emakumezkoen zein gizonezkoen ileapaindegia beiraen zerbitzuak eskaintzen dituzte Kursaaletan zehar jartzen diren erakusmahai deigarrietan.

Aitor Odriozolak zuzentzen duen Honekin ileapaindegia bigarren aldiz hartu du parte ekitaldi honetan. Lehengo urtean ferian izateko gonbidapena jaso zuten, eta jendearen harrera ona ikusita, aurten berriz izan dira. «Erakusketak bat da, ez txapelketa». Egandeko desfilean izan ziren modeloen orrazkerak eta makillajeaz arduratu ziren. Ezkongiaez jantzita egiten dute desfilea eta loreak eta osagarri bereziak eramaten dituzte, adibidez, bitxiak eta diamanteak. Igarobidea ere modu berezi batean apaintzen da. Jende asko hurbildu zen ezkontzetarako joera berriak ezagutzera.

### Beritasunak aurkeztu

Odriozolak esaten duen bezala «horrelako ekitaldiak oso leku aproposak dira gure lanak eta proposamenak aurkezteko». Aurten «tamaina handiko orrazkerak eramango dira». Prestaketa lanak normalean aste bete lehenago hasten dituzte. Edozein une aprobetxatzen dute lankideek aurkeztuko diren orrazkerak eztabaidatzeko eta erabakitzeke. Hala ere, «lan polita» dala pentsatzen dute.

### Disenatzaile famatuena haremnetan

Desfileetan erabiltzen diren arropak eta jantziak maila handiko diseinatzaileek egiten dituzte. Aur-

tengo edizioan ere aurpegi famatuak egon dira lanean. Urretxuko Leire Santillan, Irungo Frank Sarabia, mutilentzako arropa egiten duen Porfirio Ordiziarra eta Corte Blanco dendakoak izan ziren, esaterako. «Egun hauetan normalean egiten ez duzun jendearekin lan egiteko aukera dugu». Baina izen bat azpimarratu behar bada, hori Jorge Terra brasildarrarena da. Bartzelonan eta Iruñean bi denda dauzka, eta Donostian bat irekitzeko asmoa du. Diseinatzaile ospetsuak Kursaaletako feria erabili du bere izena ezagutzera eramateko.

Jorge Terra harrituta geratu zen Odriozola eta bere lankideen lanarekin, eta desfilea amaitu zenean, elkar lanean aritzeko proposamena egin zion Honekin ileapaindegiko zuzendariari. Hala, brasildarrak bere soinekoak eta jantziak eskaini ditu ileapaindegiaren katalogoetan azaltzeko. Terraren katalogo berriari aldiz, modeloen orrazkeraz arduratuko dira tolosarrak.

### Esperientzia baliotsua

Horrelako ekitaldiak oso baliotsuak dira moda eta estetika munduan lan egiten dutenentzat. «Aurreko urtearekin konparatuz, gauzak asko hobeto joan dira», dio Odriozolak. Gauza ugari ikas daitezkeela pentsatzen dute Kursaaletan lanean egon diren guztiak. «Dena hobeto antolatu dela uste dut. Bigarren aldia izan da guretzat, eta ia zoko esperientzia oso baliagarria izan da. Lanean ibiltzeko garaian hobe moldatu gara seguru nago», aitortu du. «Lazko edizioan pixkat urduri geunden, baina aurten oso seguru ibili gara lanean, eta emaitza oso pozgarria izan da denontzat. Jendearen iritziaik oso onak izan dira, gure proposamenak atsegin dituztelaren seinale».

Egun moda munduan berrikuntza asko agertzen ari dira. Orain, esate baterako, bolumen handiak, orrazkerak gaineratuak, ile hedapenak eta tamaina handiko kopetileak eramaten dira. Diseinatzaileak eta ile-apaintzaileak momentuan oinarritzen dira beraien lan berrietarako. Koloreetan, ilea mozteko eratan eta jantzien disenuetan etengabe ematen dira aldaketak. Mundu honetan lan egiten duten profesionalak beste lanetik asko ikasten dute, eta askotan, inspirazio moduan erabiltzen dituzte beraien eskaintza berrietarako.



Honekin ileapaindegiko lankideak desfilean parte hartu zuten modeloekin lanean. HITZA

## «Gure proposamen berriak aurkezteko aukera paregabea da»

AITOR ODRIOZOLA › Honekin ileapaindegiko zuzendaria

**Tolosa** › 'Gipuzkoa ezkontzak' ekitaldian eginiko lanarekin oso gustora dagoela dio ileapaintzaileak

H. BELLOSO

Aitor Odriozola (Tolosa, 1971) Honekin ileapaindegian lan egiteaz gain, zuzendaria da ere. Lehengo urtean bezala, bere lankideekin Gipuzkoa ezkontzak feria izan dira. Oso pozik geratu dira eginiko lanarekin, eta gauza berri asko ikastea aukera izan dute. Esperientzia honi buruz denbora luzez hitz egiteko aukera izan genuen berarekin.

### Nolako esperientzia izan da zuzentzat erakusketak hau?

Guretzako aukera paregabea da gure lanak aurkezteko. Bertan esatilo eta orrazkerak berriak erakusten ditugu. Bolumen handiko eta glamourrez beteriko orrazkerak egiten ditugu aurkezteko oso ondo daude. Gainera, gauza berriak probatzera behartzen gaitu. **Ekitaldi hauetan lan egitea gogorra al da?**

Lan gogorra baino, igandean lan



HITZA

### Orazkerak egiteko garaian zertan oinarritzen zarete?

Gaur egungo joeretan oinarritzen gara gehienbat. Koloreetan eta ilea mozteko era berrietatik ahal dugun guztia ikasten saiatzen gara. Telebistan, aldizkarietan, Interneten edo bideoetan beti gauza berriak ikusten dira. Beste ileapaindegien eta diseinatzaileen lanetatik ere ikasten dugu. Nire ustez, moda eta diseinuan dena asmatuta dago, eta ezagutzen diren gauza guztiak errepikatu egiten dira, baina bereiztasunekin. Mementu honetan bolumen handiak eta estensioak modan daudela esan daiteke.

### 'Vogue' aldizkari famatuaren azaldu eta gero, eskakizun maila handitu egin al da?

Ez dut uste exijentzi maila handitu denik, baina egia da orain jende askok gauza desberdinak espero dituela guregandik. Gure helburuak bezeroak pozik edukitzea eta gauzak ondo egitea da.

### Zer bilatzen du bezeroak zuzentzan?

Nor bait gure ileapaindegira etortzen denean, sentsazio berrien bila datorrela pentsatzen dut. Harrera goxo bat espero du eta bere zerbitzua osoa eta kalitatzekoa izatea nahi du. Ileanpandegiaren itxura ere oso garrantzitsua da.

**KEY-LAN**  
Sarrailgintza

Nafarroa etorb. 11 behean - TOLOSA  
Mag.: 670 41 79 22  
Tel./Fax: 943 65 03 13



Eusko Abertzale Ekintzako Tolosako ordezkariak herenegun egindako agerraldian. E. EZEIZA

## EAE-ANVk Udal gobernuetan parte hartzea aldarrikatu du berriro

**Tolosa** » Duela aste batzuk aurkeztutako mozioa osoko bilkuran «ez dutela eztabaidatu ere egin», salatu du ezker abertzaleak

### ESTI EZEIZA

Orain bi aste EAE-ANVk jakitera eman zuen bezala mozio bat aurkeztu zen Tolosako Udaletxean, Udal Organoetan parte hartzeko eskatuz. Hala, ezker abertzalekoen esanetan, Udalak egindako azken osoko bilkuran «ez zuten ezta-

badatu ere egin, are gutxiago, bertan aldarrikatzen zirenak indarrean jarri». Horregatik, honen aurrean EAE-ANVkoek plazaratzen dituzten galderak hauek dira: «Zergatik ez dute 2.000 tolosarren ahotsa entzun nahi? Zergatik ez dute gurekarpena jaso nahi? Zeren beldur dira?».

Dena den, duela hamabost egun inguru gauzatutako agerraldi hartan garbi utzi zuten bezala, beraien ustez, «mozio honekin ez da sakoneko arazoa konpontzea bilatzen». Horretarako, «hauteskundeetan 2.000 tolosarrek eman zien

zilegatasuna onartzea ezinbestekoa dela» aldarrikatzen dute. Eta gaineratu, honetarako beharrezkoa dela, «zinegotzi lapurren dimisioa eta karguak herri borondate dagozkien itzultzea». Hau aurrera eramateko, EAE-ANVk LOREG deritzon legearen 182. artikuluan aplikazioa proposatzen du.

Herenegun egindako agerraldian azpimarratu zuten ere, ezker abertzalekoek, «Udaletxean egoten uzten ez badiete ere», herriaren alde egiteko borondate sendoa dutela, «ilegalizazioak asmatu eta

indarrean jartzen dituztenen gainetik». Bestalde, azaldu zuten, herritarrekin lanean ari direla eta lan horrek laister emango dituela bere fruituak.

Alderdi politikoaren ustetan, «eskatzen duguna guztiz gauzagarria da borondate politikoa baldin badago». Horretarako, «alderdiaren legearen aurka daudela diotenek hitzetik ekintzara pasa beharra daukatela» deritzote.

EAE-ANVko hautetsien esanetan, «gure herriaren etorkizuna baldintzatuko duten erabaki garrantzitsuak hartzen ari dira Udaletxean, biharko Tolosa diseinatzeko ari dira: Hirigintza Plan Orokorra, 2015 Plan Estrategikoa...». Hori guztia herritarren laudena- ren ordezkarien parte-hartzerik gabe egiten ari dira. «Horrek, hartzen ari diren erabakien zilegatasuna kolokan jartzen duen delarik». Hala, hori oso kezagarria dela adierazi dute.

### Mozioaren puntuak

Mozio honek, EAE-ANVren ordezkariak, Udaletxe baretik ere, Tolosa eta tolosarren alde lan egiteko gutxieneko baldintzak sortzea du helburu. «Herritarrek hala eskatu digutelako eta gure eskubidea eta ardura delako» egiten dute honen alde. Aipatutako mozioan, besteak beste, puntu hauek aldarrikatzen dituzte.

Alde batetik, Udal batzorde informatiboetan, osoko bilkuretan, eta organo instrumentaletan parte hartzea. Bestetik, batzorde eta organo desberdinen funtzionamendu plangintza, bilera egunak... beraietara igortzea. Azkenik, parte-harrena alde egiteko borondate sendoa dutela, «ilegalizazioak asmatu eta

## Laburrak

### Orixeko DBHko gurasoentzako hitzaldia

**TOLOSA** » Hurrengo astelehenean, abenduak 10, 18:30ean hitzaldi bat eskainiko da Orixeko Institutuan. Hemen komunikazioa seme-alabekin gaiari buruz. hitz egingo dute Aipatutako hitzaldia, oraingo azararen DBHko 1go, 2. eta 3. mailako ikasleentzako gurasoentzako hitzaldia. Hizlaria Jose Francisco Amiama psikopedagogo izango da

### Erniobeako lankideek bat egin dute Milarekin

**VILLABONA** » Erniobeako Institutuko lankideek bere elkartzuna eta adiskidetasuna adierazi nahi diote, idatzi baten bidez, Milari eta bere seme-alabei. Izan ere, 18/98ko auzia dela eta, hauen senar eta aita, atxilotua izan baita. Bestalde, beraien desadostasuna azaldu nahi dute «epaiketa faltsu honetan epaituak eta zigortuak izan baitira euskal kultura eta euskara hizkuntzaren alde lan egiteagatik».

### Bonberenearen 10 urteak liburu batean bilduta

**TOLOSA** » Bonberenearen 10 urte bete dituela ospatzeko oroigarri bat prestatu du. Bertan, Bonberenea inguruan bildu diren gazteen bizipenak eta bizipozak agertzen dira. Atzo aurkeztu zuten Bonbereneako argitalpena. Urtez urteko gertakizunen argazkiak, azpiegituren argazkiak, diskoen azalak, grabaketa estudioan ateratako erretratuak... aurki daitezke bertan. Bestalde, hilaren 15ean aurkeztu den herrikoia egingo dute Triangulo plazako arkupeetan, 11:00etan. Bertan Jone abeslari anoetarra eta Bonberenea txaranga ariko dira.

### Ken 7ren kontzerturako sarrerak salgai daude

**TOLOSA** » Ken 7 taldeak hilaren 14an Leidor aretoan eskainiko duen kontzerturako sarrerak salgai jarri berriak dira. Hauek, Leidorreko leihatiletan eta Kutxa bidez eskuratu daitezke: Servikutxa, telekutxa eta [www.kutxa.net](http://www.kutxa.net) Kontzerturako sarreraren prezioa 12 euro-takoa da.

## Iragarki laburrak

### LANA

» **Zerbitzaria.** Ordiziko Herrikorako zerbitzua behar da. Interesatuek deitu 943 88 75 98ra.

### SALGAI

» **Etxebizitza.** Etxebizitza salgai Zumardi Txikiaren parean. (Santa Klara). 2 logela, sukalde handia, ganbara eta berogailuak. Hormigoizkoa. Ikuspegiak Uzturre aldera.

## B Blogteka info

### Janari bilketa Sahararen alde

Iritsi da Abendua eta urtero bezala "piztu itxaropena" izeneko programa jarri dugu martxan. Urtero egiten dugun bezala, Saharako errefuxatu kanpamentuetara bidaltzeko janari biltzean datza. Aurten bilduko ditugun elikagaiak: arroza, azukrea, lentejak eta atuna da eta bestalde baita konpresak ere. Honetarako toki ezberdinetan ipiniko dira: Tolosan, ikastetxe ezberdinez gain, Eroskin, Ifan eta Consumen jarririko dira, gainera Abenduaren 26tik aurrera Laskorain Ikastolak antolatzen duen Merkatu TXikiaren ere izango hau elikagaiak uzteko txokoa.

Gainera herri bakoitzean ere izango da beste hainbat txoko. Gogoratu beharra dugu, aurtengoa bereziki garrantzitsua dela, ONUk aurreko urtean berak ematen zuen laguntza %46an jetsi bazuen aurtengoa honi PAM-ek (mundu mailan elikadura banatzen duen taldea) %55a jetsi du. Hortaz egoera oso larria da.

Gogoratu saharar herria ez dela bere lurra bizi eta aurrera ateratzeko modu bakarra laguntza humanitarioa dela eta aurretik esan bezala mundu mailako laguntza eteten ari da eta honen erantzukizuna Saharar herria gosez hil nahi duten herrialdeena da.

Horrela bada zure laguntza ezinbestekoa da. Gainera aurtengoan erroka garrantzitsua bat dugu, Tolosaldea mailan 10.000 kilo jaso nahi ditugu. Hortaz "aurten baietz 10000" lelopean janari biltetari hasiera emango diogu. Aurreko urtean 7000kg izan zen gure erroka eta aurtengoan 10000kg. Lortuko al ditugu?

Guretzat gutxi dena haientzat asko dela gogoratu, guztioi janari biltetako txokoetara gerturatzeko deialdia egiten dizuegu. Bertan utzi beharreko produktuak: arroza, azukrea, lentejak, atuna eta konpresak dira. Aurretik eskerrak eman nahi dizkizuegu bertara gerturatuko zaretzen guztioi.

**Tolosaldeko Sahararekin**  
<http://www.tolosaldekohitza.info/blogak/sahararekin>

## Gaur irekiko ditu ateak Txuletoiaren festak

**Tolosa** » Bigarren aldiz, Zerkausia erretegi erraldoi bilakatu da; jaiaren baitan, pilota eta aizkora desafioa izango dira

### ERREDAKZIOA

Gaur zabalduko ditu ateak Tolosako Txuletoiaren festak. Euskal Herriko lau txuleta erretegi ezagunenetakoen jakiez gozatzeko aukera izango dute ehundaka lagunek. Casa Julianeko Matias Gorrotxategi, Casa Nicolaseko Pedro Ruiz, Burrentzi erretegi Juanjo Pascual eta Orue erretegi Javier Hualde izango dira sukaldari lanean ariko direnak.

Afari nahiz bazkarietan ohiko erretegi menua eskainiko dute: txuleta, piperrak, pernila, kuku-turruak, esparragoak, gazta eta zigarrak, teilak eta xaxuak, postre gisa. Menuaren prezioa 40 euro-takoa da eta erreserba egiteko ezin-

bestekoa da 943 69 74 13 telefono zenbakira deitzea. Tolosa Gourmet ekimenaren baitan dagoen Txuletoiaren bigarren jai honetarako jende askok egin ditu bere erreserbak. Hori dela eta, Zerkausi merkatuaz gain, herriko beste sei jatetxe eta sagardotegitan ere datatu ahal izango da erretegi menu hori. Honako hauek dira aipatutako erretegi eta jatetxeak: Astelena, Botarri, Beti Alai, Beobide, Usabal eta Uzturre.

### Kirol desafioak

Jaialdiaren harira, larumbatean, Aspe eta Asegareko pelotarien arteko desafioa ikusi ahal izango da Beotibar frontoian. Olaizola II eta Begino, Titin III. eta Goñi III.aren aurka ariko dira. Bestalde, egun bat beranduago, igandean, binakako Urrezko Aizkolari Txapelketan neurtuko dira Joxe Mari Olasagasti eta Joxe Mari Mujika, Iñaki Azurmendi eta Jose Ugartebururen kontra.

# Guztiak Sven Nys-en aurka bihar jokatu den Nazioarteko Ziklokrosean

**Asteasu** » Ziklokroseko txirrindulari onena da Sven Nys flandiarra, baina aurkari zailak izango ditu Elizmendiko zirkuituan

**IMANOL GARCIA**

Asteasuko IX. Nazioarteko Ziklokrosa jokatu da bihar Elizmendiko zirkuituan. Orain arteko bereziena izango da, Sven Nys flandiarrak parte hartuko baitu, ziklokroseko egungo txirrindulari onena eta agian historian zehar izan den onena ere. Garbi dago, beraz, zein den faboritua biharko lasterketarako.

Lehenengo aldiz ariko da lehia Sven Nys Asteasun. Lasterketa antolatzen duen Aitzondo Txirrindularien Elkarteak Ramon Aierzak azaltzen duenez, «oso zaila izan da Nys Asteasura ekartzea. Beti ezezkoa ematen zuen eta aurren lortu dugu. Oso gustura gaude horregatik».

Sven Nys, besteak beste, Munduko txapelduna izan zen 2005ean, bost aldiz irabazi du Munduko Kopa eta zazpi aldiz Superprestigioa. Asteasuko irabazten badu, 200 lasterketa inguru irabaziko litzuke. Igorren (Bizkaia) igandean jokatu duen Munduko Kopako proba ere berak irabazi zuen.

## Aurkariak

Ez ditu aurkari makalak izango flandiarrak. Christian Heule suitzarra iazko irabazlea izango da horietako bat. Hiru aldiz izan da Suitzako txapelduna. Beste aurkari bat Sven Vanthourenhout flandiarra izango da. besteak beste 2001. urtean 23 urte azpiko munduko txapelduna izan zen eta Belgikako txapelduna. «Oso ona da. UCiko zerrandain bosgarrena dago eta Nys-en parean ariko da», azaldu du Aierzak.

Aurretik Asteasun parte hartu duten Jonathan Page estatubatuarra, Radomir Simunek txekia-



Christian Heule suitzarra izan zen iazko txapelduna. NEREA URBIZU

rrak, Kamil Ausber txekiarrak eta Wesley Van Der Linder flandiarrak ere parte hartuko dute. Horiez gain David Seco, Unai Yus eta Javier Ruiz de Larrinaga euskaldunek parte hartuko dute. Isaac Suarez espainiarrak eta errepidean aritzen den Tino Zaballa espainiarrak ere parte hartuko dute.

## Zirkuituarekin «gustura»

Elizmendi auzoan egingo dute lasterketa. Iazko zirkuituaren berdina izango da, aldaketa txiki batzuekin. Iaz egin zen lehenengo aldiz Elizmendi lasterketa eta antolatzailerak «gustura» agertu ziren emaitzarekin. «Txirrindulariekin hitz egin genuen», dio Aierzak, «eta oso gustura zeudela esan zuten eta, beraz, lehenengo urtekoa mantentzen saiatu gara».

Guztira 2.610 metro ditu zirkuituak eta helmuga elizaren parean

izango du. Egun hauetan euria egin duenez, lokatza seguru agertuko dela bihar. «Eguraldi ona espero da lasterketa egunerako, baina lokatza egongo da eta ziklokrosa izanik, lasterketa politagoa egingo du», azaltzen du Aierzak.

Guztira 80 txirrindulari inguru espero dituzte. Hiru proba egingo dira. Kadeteak lehiatuko dira lehenengoan. 10:00etan hasiko dira eta ordu erdi inguru ariko dira lehia. 10:45ean junior mailakoak ariko dira, 45 minutu inguru. 12:30ean 23 urte azpikoak eta elite mailakoak aterako dira eta ordu bezetaz ariko dira.

Iaz bezala zirkuituaren erdian karpa bat jarriko dute antolatzailerak, ikusleagoak bertatik proba jarraitzeko. «Jende animatzen dut ziklokrosa ikustera etortzera», azaldu du Aierzak, «maila handiko txirrindulariak izango baitira».



## Mikel Zalakaini omenaldia

**VILLABONA** » 50 lagun inguru bildu ziren igandean Mikel Zalakaini omenaldia egiteko. Zalakaini Martuteneko espetxean hil zela 17. urteurrena izan da. Txalapartariak hasi zioten ekitaldiari. Gero omenduenen biloba eta iloba batek agurra dantzatu zuten. Ondoren testu bat irakurri zen, 17 urte pasa ondoren «egoerak berdin jarraitzen duela» azalduz. HITZA

## Kultur Astearen «balantze positiboa»

**Larraul** » Herritarrek ekitaldietan parte hartu dute eta «ez dira beti berdinak izan», azaldu du Xabier Mujika alkateak

afaria egin zuten eta 20 bat lagun bildu ziren bertan.

Larunbatean haurrak eskulana egiten aritu ziren. «40 bat haur inguru aritu ziren kamisetak margotzen». Mus txapelketa jokatu zuten arratsaldean. «Oraingoan ere kanportarrek eraman zuten arkumea», dio Mujikak. Gorringo taldearen emanaldian 80 lagun bildu ziren. Gauean kantu-poteoa egin zuten.

Igandean mendi irteera egin zuten herriaren eta Alkizaren arteko mugariak ezagutzeko, Koldo Jauregiren laguntzaz. Arratsaldean, gaztetxoaren arteko pilota partiden ondoren, taloak jateko aukera izan zuten eta azken urteetan Larraule- ra bizitzera joan diren familiak azaldu zirela esan du Mujikak.

**I. GARCIA**

Larraulen egin berri dute Kultur Astea eta Xabier Mujika alkateak «balantze positiboa» egin du. «Jendeak parte hartu du ekitaldietan eta ez da beti berdina izan».

Ostiralean hasi zen Kultur Astea eta haurrak izan ziren protagonista. Merienda egin zuten eta tribial moduko jolasa, tardean Larrauli buruzko galderekin. «Haurrak gustura hartu zuten jolasa», azaldu du Mujikak. Gau partean bertso



Taloak egiten jardun zuen taldea. KARLOS IRAZU

**txokoa**

HITZAren HARPIDEDUN TXARTELAREKIN %5\*-eko BEHERAPENA izango duzu zure EROSKETETAN

DENDA HAUEK HITZA-REN LAGUNTZAILEAK DIRA:

**kanikak**  
San Frantzisko, 21 • Tolosa  
Tel.: 943 65 27 46

**hobeekin**  
TOLOSA • Tel.: 943 67 22 44  
Santa Mari plaza, 1 beheko

**ILUMINAZIOA**  
Gudari kalea, 5 • TOLOSA  
Tel.: 943 65 04 62

**SHANTI KIROLAK**  
Rondilla, 11  
TOLOSA  
Tel.: 943 67 40 74

**MUGAR**  
Nafarroa etorb. 16 • TOLOSA • Tel.: 943 65 36 85  
Pablo Gorosabel, 28 • TOLOSA • 943 65 40 37

**Avalon**  
osagaia k  
korreo, 11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

**LIZARRIBAR OINETAKOAK**  
Arosiegietako kalean  
TOLOSA

**HITZAren harpidedunentzat abantailak**

**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

# Gazte Taldeak hamar urte betetzearekin, ekintza anitz

**Amezketak** » Bihartik hasita abenduan zehar amalurrarekin eta oro har gazteekin loturiko ekitaldiak antolatu dituzte.



San Martin Eguna ere Amezketako Gazte Taldeak antolatzen du. NAIARA GARZIA

## ERREDAKZIOA

Amezketan, beste hainbat txokotan bezala, gazteriak ekarri dio herriari mugimendua, ilusioa eta bizia. Aurrez ekimen ezberdinak izan arren, «Zazpi-Iturrir elkartearen inguruan, gazteen ekimenez, herriak kultura eta kirol aldetik hartu zuen bultzada aipatuz hasi nahiko genuke». Honen harira, hainbat ekitaldi antolatu dituzte abenduan zehar, Gazte Taldearen 10 urteak ospatzeko.

## Historia pixka bat

Garaiak aldatzen joan zirenean gazteeraren beharrak ere bai. Horrela, Euskal Herrian gazte espazioen aldarrikapenak gora egin zuen urteetan; Amezketan ere hasi ziren gazteak mugitzen. Beraien gauzak antolatzeko gogoarentzat leku bila aritu ondoren, Meikue-txearen ganbaran, eta ondoren Eskola Zaharretan gaztetxea ireki zuten. Gerora, asmo hauek amaiera izan zuten.

1997an herriko gazteak elkar-tzeko asmotan eta herriarentzat zerba-it egiteko gogoarekin, gazte-ak biltzen hasteko deia egin zen. Mugimendu hauetatik sortu zen, egun, zutik bezain bizirik dirauen Amezketako Gazte Taldea, AGT. Orduan gazte mordoxka biltzen zen bileretan. Kontua gauzak antolatzea zen.

## Ekintzak autogestioaren bidez

Urteak joan ahala, esperientzia hartzen joan zen, gazte berriak hurbiltzen, beste batzuk joaten, herriko gazte belaunaldi, talde ezberdinak bilduz, ekintza gehiago antolatuz: erregeen etorrera, Gazte Eguna, lehiaketak, Talaiarekin konpromisoa, kontzertuak, bideo emanaldiak, irteerak, beste gazte asanbladekin elkartasuna eta ekintzak, euskal errepresaliatu politikoekin elkartasuna, euskarari bultzada, antzerkia, erakusketak, jolasak, jaialdiak, jazzaladiak, gaztetxe martxa, AHTren inguruko eztabaidak, salaketak, bazkariak, txosnak, jokuak, mahainguruak...

Autogestioan oinarrituta, «gehiago da 10 urte hauetan AGT herriari eskaini nahi izan dioguna». «Une gozoak, garratzak, lagun onak, konfidantza gutxiago-koak baina hala ere 10 urte. Gazte-ok arazo eta behar berdinak ditugulako antolatzen gara. Irudimena dugulako gauza berriak planteatzen ditugu eta aurrera atera, geure modura aske sentitzeko».

«Gazteak garelako, autogestioan sinesten dugulako, herria maite dugulako, beharrak eta nahiak ase nahi ditugulako, injustiziak ikusten ditugulako, egiten dugun horretan sinesten dugulako 10 urte, eta bizirik!»

## » EGITARAUA

### Bihar

■ **09:00.** *Espaniar konstituzioari ez!* guk jairik ez!: plazan auzolana: tresnak eraman behar dira.

■ **14:00.** Bazkaria Zazpi-Iturrin.

■ **18:00.** Herria kolorez piztera!

■ **21:30.** Areto futbol txapelketa azkarra (tabernetan zerrendak).

# Ramon Lasa Esnaola Albizturko alkatea hil da gaixotasun batez

**Albiztur** » Gaur arratsaldean, hileta elizkizunaren aurretik omenaldi xume bat egingo diote herritarrek.



Ramon Lasa alkatea. N. URBIZU

## ERREDAKZIOA

Atzo goizean Albizturko Ramon Lasa alkatea hil egin zen gaixotasun baten ondorioz. Albizturko Herria plataformako burua zen; 37 urte zituen eta duela 16 urte ere zinegotzi izan zen zortzi urtetan zehar, eta baita alkateorde ere. Azkeneko hauteskundeetan, maiatzekoetan, hain zuzen, aukeratu zuten herriko alkate.

Gaur 12:00etan lurra emango diote hilerrian. 17:30ean elizkizu-

nak egingo dituzte, baina horren aurretik omenaldi xume bat egingo dio herriak. Bertan, sendiari lore sorta emango diote. Ikurrina haga erdian jarri dute dola-seinale moduan. Administrazio lutoa hirur egunetan gordeko dute.

# Udal aurrekontuei lotutako galdeketa prestatu du Udalak

**Villabona** » Herritarren parte-hartzearekin eta «aurrekontuak denoi dagokigulako» galdetegia betetzeko aukera dago

galdetegi bat prestatu du interesa duen edonork bete eta Udalera helarazi dezan, baina kontuan izanda hilaren 10a baino lehen, astelehena, alegia.

## Erantzun beharreko galderak

Hauet dira Udalak prestatu dituen galderak: Zein dira zure uestez etorkizunean Villabonako Udalak erantzun beharko lituzkeen beharrak, lehentasunen arabera sailkatuta? Behar guzti horietatik zeintzuk ikusten dituzu 2008an bertan egin beharrekoak? beste zerba-it esateko?

Galderak udaletxeak jaso dituzan gutunontzi bat ipini dute udaletxearen barruan, sarrerako atearren atzeko aldean. Inkesta Udalarren webgunean ere bete daiteke: [www.villabona.net](http://www.villabona.net).

## ERREDAKZIOA

Villabonako Udalak 2008ko Udal aurrekontuak osatzen ari da. Gauzak honela, hainbat prozedura martxan jarri ditu, aurrekontu hauen osaketan ahalik eta parte-hartze handiena bermatzeko. Udalteknikariekin, herriko eragile desberdinekin eta «uste dugu herritarrekin ere egon behar duela Udalak», azken batean «aurrekontuak denoi dagokigun gaiak baitira». Lan hori egiten ari da uneotan. Honela, Villabonako Udalak

## Zurea da hitza info



# Angel magoaren saioa udaletxean

**ORENDAIN** » Kultur ekintza magikoa antolatu zuten joan den azaroaren 24ean Orendainen. Angel magoa etorri zen Orendaingo Udaletxeko areto nagusira.

Gustoko saioa gertatu zen eta parte-hartze ona izan zen. Orendaingo kultura batzordeak antolatutako izan zen, Kutxaren finantzaren bitartez. HITZA

## Laburrak

### Vicente Lhermet akordeoi jotzailearen kontzertua

**TOLOSA** » Gaur, 19:00etatik aurrera akordeoi kontzertua izango da Tolosako Udal Musika Eskolan. Hain zuzen ere, Vincente Lhermet finlandiarrek eskainiko du emanaldia, joan den urtean Arrasateko Akordeoi Lehiaketan Arrasate Hiria irabazi zuena. Sarrera doakoa izango da. Bihar, berriz, Arrasaten Arrasate Hiria lehiaketari emango diote hasiera.

### Haur Danborranda kantinera izateko epea

**TOLOSA** » Datorren urteko Inaurretiko Haur Danborradarako kantinera izan nahi duenarentzat argazkiak aurkezteko epea zabalik dago. Hala ere, epea hilaren 9an amaitzen dela jakinarazi du Velela Aiz-Orratz elkarteak. Interesatuak daudenek bi argazki, atzean izen-abizena dituztela elkartean aurkeztu behar dituzte epea bukatu baino lehen.

# EHNA tramitatzeko aukera eskainiko du Bai Euskal Herriaririk bihar

**Ibarra** » Euskal egutegi bat aldarrikatu zuten hainbat herritarrek pasa den astean «inposatutako espainiar jai egunen» orde.

## ASIER IMAZ

Hainbat ibartar Euskal Herriko Nazio Agiria (EHNA) eskuan eta mahai pare baten atzean elkartu ziren pasa den astean, abenduaren 6a, Espainiako Konstituzio eguna, jai eguna dela esanaz. Honen ondoren, galdera egin zuten: «Zer dugu ospatzeko euskaldunok?».

### «EHNA egin eta erabili!»

Ibarrako Bai Euskal Herriari mugimenduak, EHNA tramitatzeko aukera eskainiko du bihar, ostegunean, Ibarrako udaletxean. Tramitazioa egin nahi duenak, 11:00etatik 14:00etara udaletxeko ateak zabalik izango ditu. Arduradunek jakinarazi dutenez, «3 argazki, 15 euro eta errolda agiria eman beharko dira», azken hau, beti ere Ibarren erroldatutik ez daudenentzako baldintza izango da. «Hemen bilduriko herritarrek,



Ibarrako Bai Euskal Herriaririk hainbat herritar elkartu zituen EHNA eskuan pasa den astean Kultur Etxean. ASIER IMAZ

ibartar guztiei, haur, gazte nahiz helduei, Euskal Herriko Nortasun Agiria egitera gonbidatu nahi zaituztegu. Espainiako Konstituzio egunean, euskaldunak garelara eta hala bizi nahi dugula erakutsiko dugun».

Halaber, Bai Euskal Herriari he-

rri mugimenduak emandako prentsaurrekoan, «etorkizuneko Euskal konstituzioa» aldarrikatu zuten. Euren esanetan, «herritarrek planteatuta, eztabaidatuta eta erabakia» izango litzateke, hain zuzen ere, etorkizuneko konstituzio hori.

Abenduaren 6ari dagokionez, «Euskal Herria ukatzen duen eguna» dela azaldu zuten, «azken batean, espainiarren inposizio egun bat ospatzen dugu». Egundun honen aurrean, azken urteetan ematen ari omen den bilakaera ere azaldu nahi izan zuten; «pixkanaka, urte-

tik urtera, geroz eta jende gehiagok egun arrunt baten moduan, inposatutako espainiar jai egunean, ikastolara, unibertsitatera, lantegira... joateko hautua egiten du, poliki-poliki Espainiako konstituzio egun hau, egun arrunt bilakatzeneko».

### Etorkizunerako euskal konstituzioa aldarrikatu dute, «herritarrek eztabaidatuta»

Urriaren 12ko Hispanitate Eguna eta Abenduaren 6ko Espainiako Konstituzio eguna, jai egun bezala ordezkatu dituen euskal egutegi bat ere aldarrikatu nahi izan zuten Bai Euskal Herriari mugimendutik, ordezkatu jai egun izan daitezkeen egunen adibide eta arrazoiak emanaz: «martxoak 8ko emakumearen eguna; Izaskungo jaia; Ibarrako independentziaren eguna edota abenduaren 3ko Euskararen Eguna».

### Ideiak airean

Ideia hauek datorren urterako «airean» uzten dituztela aipatu zuten, «jendeak, familian, lagunartean, dendetan, ikastolan, tabernetan, udaletxean, lantokietan... azter eta eztabaida ditzan».

EHNA tramitatu nahi duenak beraz, bihar izango du aukera Ibarako udaletxean.

## Hilberriak

### BARTOLOME ETXEBERRIA ZELAIA

JAUNA

Atzo hil zen, 89 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

-Goian bego-

Haren animaren zuzendaria: Javier Subero; emaztea: Joakina Barriola; seme-alabak: Maria Angeles eta Antonio Martiarena, Jose eta Maria Paz Oiarbide, Maria Joxepa Milagros (†), Martin eta Marixabel Izaguirre, Andres eta Begoña Irastorza; bilobak: Iker, Ioritz, Aiora, Maialen, Asier, Eneko; anai-arrebak: Martin (†) eta Joxepa Barriola, Maria (Andres Olaondoren alarguna), Juana (lekaimea franciscana); ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde oitotz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezte GAIUR, ASTEAZKENA, arratsaldeko LAU T' ERDIETAN, Gazteluko ANDRE MARIAREN JASOKUNDEA parroki elizan, gorputza bertan dela egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Helbidea: Enreki baserria

Gorputz beila Tolosako Funeraria Vascongoda beilatokian egongo da gaur arratsaldeko 16:00ak arte.



GAZTELU

2007ko abenduaren 5a

### JOXE RAMON SANTAMARIA GARATE

'Xanta'

Kumanan (Venezuela) hil zen

Itsasontzi batek Euskal Herriatik kanpora narama...  
**Etxekoak**

ZUMAIA, 2007ko abenduaren 5a

Oharra: Gaur, abenduaren 5ean, 19:00etan, Zumaiako parrokiaren egingo da meza.



### RAMON LASA ESNAOLA

JAUNA

«Albizturko alkatea»

Atzo hil zen, 37 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

-Goian bego-

Haren animaren zuzendaria: Joxi Eguzkitza; neska laguna: Olatz Ezeiza; gurasoak: Jose Maria eta Ines; anai: Bittor; osaba-izebak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde oitotz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezte GAIUR, ASTEAZKENA, arratsaldeko BOST T' ERDIETAN, Albizturko ANDRE MARIAREN ZERURATZEA parroki elizan, egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Helbidea: Ernio Etxea ez.

Gorputz beila Tolosako Funeraria Vascongoda beilatokian egongo da gaur eguerdik 11:30ak arte. Errosario santua arratsaldeko 17:15ean errezatuko da.



ALBIZTUR

2007ko abenduaren 5a

### RAMON LASA ESNAOLA

JAUNA

Zure ametsa eta ideiak gauzatzen saiatuko gara beti ere zure argipean



Albizturko udal taldea eta langileak



ALBIZTUR

2007ko abenduaren 5a

### RAMON LASA ESNAOLA

JAUNA

«Albizturko alkatea»



ALBIZTURKO UDALA



ALBIZTUR  
2007ko abenduaren 5a

### RAMON LASA ESNAOLA

JAUNA

-Goian bego-



Urak dakarrena urak darama, zuk emandakoa gurekin gelditzen da.

Albizturko zure lagunen partetik



ALBIZTUR  
2007ko abenduaren 5a

### LASA TA ESNAOLA TAR RAMON

JAUNA

«Albizturko alkatea»



Argi bat itzali da hemen lurra. Izar berri bat piztu da Euskal Herriko zeru ederrean.



Hotz Atsegin Elkarte bazkide eta langileak.



ALBIZTUR,  
BEIZAMA,  
BIDEGOIAN,  
ERREZIL  
2007ko abenduaren 5a

# Agenda 21 en lehenengo foroan, hagitz jende gutxi

**Gizartea** » Agenda 21 aurrera eramateko herritarren parte-hartzea «ezinbestekotzat» jotzen dute arduradunek

**NAIARA GARZIA**

Mendialdeko Agenda 21 proiektua aurrera doa diagnosi edo azterketa fasean. Proiektu honen barruan dauden 8 herritan hainbat inkesta egin eta gero, Mendialdeko egoera zein den aztertzekeo zentzuzko foro proposatu zituzten proiektu honen arduradunek, Terra eta Prometea enpresakoei. Arduradunek orduan argi utzi zuten bezala, «foro hau 8 udalerritan prozesuarekiko interesa duen edonorri zabaldua dago». Proiektu honen atzean jende asko dagoen arren, Terra eta Prometea enpresako Zorione Aierbe, Gurutze Santxo eta Itziar Montejo dira, nolabait, arduradunak.

## Foroak, zergatik?

Zorione Aierbek foroaren zergatia azaldu du. «Dignostiko hori egiteko guk aurrena Mendialdeko 8 herri horiek nola dauden ikusi behar dugu. Horretarako ze tresna erabiltzen ditugu? Udalezako inkesta, gero teknikoki Udalezako teknikariekin, osasun-etxeekin, ikastetxeekin... ere bildu gara, gaiez gailan taldeak egiten ari baikara. Baina guzti hori ere herritarren pertzepzioarekin osatu nahi dugu. Horretarako sortu dugu foro ireki hau».

Zonaldean egindako 310 inkeste herritarren iritzia jakiteko beste bide bat zabalzen dute, parte-hartze tresna bat da, baina Aierberen ustez, «mugatu». «Foroetan, aldiz, eztabaida sakonagoa sortzeko esparru bat ikusten dugu». Dena den, Aierbek inkesten baliagarritasuna azpimarratu du. «Inkesta erreprezentatiboa da erantzun duten 310 pertsona horien arabera, baina orokorrean zonaldeko errealitatea islatzen duela esan digute eragile eta politikariek. Abiapuntu bezala informazioa ematen du».

## Lehenengo foroa, Leitza

Lehenengo foro honetarako Leitza aukeratu zuten, eta bertako udaletxeko Batzar Aretoan bildu ziren, azaroaren 22an. Ez zen nahi eta espero adina jende bertaratu. «Oso jende gutxi bildu zen», dio Zorione Aierbek.

Printzipioz 5 foro eginen dituztela aurreikusita dago. «Oraingoz eta lehen diagnosi faserako, 5 alditan biltzea aurreikusi dugu». Lehenengo Leitza egitea aukeratu zuten. «Horrela suertatu zen. Baina aurreneko foroan horren jende gutxi etorri zela ikusita, bigarren foroa abenduaren 18rako planteatuta geneukan, baina bertan behetara geldituko da, egun horretan batzorde eragile eta politikarien arteko beste bilera bat egitea erabaki baitugu, beraiekin adosteko herritarren parte-hartzea nola bultzatu edo zer egin foroetara soilik 7 edo 8 pertsona etorri ez daitezela». Zorione Aierbek horrelako proiektu

baten zailtasunak onartu ditu, batak bat lan taldea kanpoko denean, arrotza. «Azken finean gu kanpotik iristen garen lan talde bat gara, baina bertako herritarren parte-hartzea bultzatzeko ezinbestekoa dugu Udalen laguntza, komunikabideena... Gu inork ez baikaitu ezagutzen».

## Herritarren kezka

Etxebizitza, da, zalantzarik gabe, herritarren kezka nagusienetako bat, egindako inkestetan ikus daitekeenez. Zorione Aierbek, honez gain, inkestetan oinarrituta, mendialdeko herritarren kezka nagusiak zein diren azaldu du.

«Zonaldeko lanaren egoera, kalitateko lanpostuen garrantzia, alegia, errepideen egoera zenbait lekutan, eta honi lotuta garraio publikoaren zerbitzua, gero bereziki Goizuetako kasuan herriko sarbideak sortzen dizkien arazoak... eta zerbitzuei dagokienez, azpimarratuko nuke, osasun-etxeen egoera. Zerbitzua oso ongi baloratuta ateratzen da, baina faltan botatzen dira zenbait gauza... Azken finean plaka bat ateratzeko Iruñera joan behar dugu...».

Aierbek oraindik ondorioirik ez dutela ateratu dio. «Oraindik abiapuntuan gaude, inkestetako jendearen pertzepzioa da eta hori azterketa sakonago batekin kontrastatu behar dugu. Orain daukagun erroka prozesu tekniko horri jarraipena ematea da. Guzti horren martxo alderako diagnostiko sendo bat osatzea».

## Z Zurea da hitza info



## Txapel bat gehiago

**LEITZA** » Saioa Iraola eta lera Agirre leitzarrek Sakanako II. Pala Txapelketa irabazi berri dute. Txapelketa Etxarri-Aranatzek jokatu zen eta beraien kategorian orotara 12 bikotek parte hartu zuten, hiru taldetan banatuta. Finalak azaroaren 17an jokatu ziren Etxarri-Aranatz bertan eta Saioa eta lerak 30-24 irabazi zieten Aristorena ahizpei. HITZA

## Koldo Amestoy ipuin kontalaria, liburutegian

**Leitza** » Joan den ostegunean ipuin kontalariak helduentzako 'Harriola Marriola' ikuskizuna eskaini zuen

Oskorri, Mixel Ducau, Jon Maia eta Urbeltz.

Ikuskizunak frantses ez ere eskaintzen dituzte, bai Frantzia bai frantsesa hitz egiten den hainbat herrialdetan ere lan egiteko aukera izan du bere ibilbidean zehar, besteak beste, Suitzian, Belgikan, Quebec-en, eta Afrikako zenbait herrialdetan.

## ERREDAKZIOA

Joan den ostegunean, 18:30ean, Koldo Amestoy ipuin kontalariak *Harriola Marriola* ikuskizuna eskaini zuen herriko liburutegian. Helduei zuzendutako saioa izan zen eta bertaratu zirenek mitologia pertsonaia murgiltzeko aukera izan zuten.

## Ibilbide luzea

Koldo Amestoy ia 25 urte daramatza mundu honetan. Artista elebiduna denez, Euskal Herrian eta Frantzia eskaini izan ditu bere ikuskizunak.

Euskal Herrian, gainera, azken urteetan hainbat artistekin lan egiteko aukera ere izan du, hala nola



Amestoy ipuin kontalaria. HITZA



Mendialdeko herrien etorkizuna erakitzekeo herrien eta herritarren gaur egungo egoera aztertzen ari dira. J. ASTIBIA

**Higiezin Agentzia**  
Pablo Gorosabel 40  
1. solairua • 7. bulgoa  
20400 Tol. OSA  
Tel./faxa: 943 65 55 87  
Sakelakoa: 669 368 994

**Tolosa:** Errementari kalean, 62 m<sup>2</sup>tako planta duen etxebizitza, 3 logela, garajea aukeran.

**Tolosa:** Berritutako 50 m<sup>2</sup>ko etxebizitza, 2 logela, 50m<sup>2</sup>-ko garajea.

**Tolosa:** Berazubi, berritutako etxebizitza, kanpoaldera, bista ederrak.

**Tolosa:** Berazubi, 90m<sup>2</sup>ko etxebizitza, egoera onean, altzariekin.

**Tolosa:** Larramendi, etxebizitza laugarren

solairuan, igogailua, egoera ezinhobean, garajea aukeran.

**Tolosa:** Aldaba auzoa, 3 pisutako adosatua, lursailarekin, 297.000 euro.

**Tolosa:** Errementari kalea, hirugarren solairua, 3 logela, berritua.

**Tolosa:** Nafarroa Etorbidea, bigarren solairuan etxebizitza, 90 m<sup>2</sup> erabilgarriak.

**Tolosaldea:** Baseria, 10.000 m<sup>2</sup>-ko lursailarekin, konpontzeko.

**Tolosa:** Belate, garaje itxiak salgai, 25 m<sup>2</sup>, obrak hasita.

**Abaltzisketa:** Etxebizitza polita altzariekin. Ikuspegi ezin hobea. Bi ibilgailuentzako garajea.

**Albiztur:** Konpontutako baserri polita, 13.000 m<sup>2</sup>-ko lursailarekin.

**Alegia:** Eraiki berriak, 13 etxebizitza, 1 eta 2 logeletakoak, trastelekuarekin, 174.000 eurotatik gora.

**Altzo:** 75 m<sup>2</sup>-ko planta duen bi pisutako borda, 10.000 m<sup>2</sup>-ko lursaila.

**Altzo:** Etxea, konpontzeko, 3 etxebizitza egiteko lizentziarekin, 10.000 m<sup>2</sup>-ko lursaila.

**Anoeta:** Etxebizitza harrizko baserrian, konpontzeko, 90 m<sup>2</sup>.

**Iruia:** Etxebizitza, atikoa, 3 logelarekin eta kanpoaldera begira. Oso eguzkitsua da. 237.500 euro.



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko-hitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko-hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.  
**Ibarra:** 687 410 032. ibarra@tolosaldeko-hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**

BERTAKO HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Deialdiak

■ **Ibarra, Bihar, EHNA** tramitatzek aukera. Eman beharrekoak: 3 argazki, 15 euro eta errola agiria (Ibarra ez bazaude errolatua). Antolatzailea: Ibarra Bai Euskal Herriari.  
■ **Tolosa. II. Txuleta Festa** izango da hilaren 9ra arte Zerkausion, Astelena, Botarri, Beti Alai eta Bidebide jateketean eta Usabal eta Uzturre sagardotegietan. Izen-ematea, 943 697413 telefonon 40 eurotan.  
■ **Villabona.** 56ko kintoak elkartuko dira abenduaren 8an (larunbatean): 12:00etan meza egingo dute Jesusen Bihotza parrokiaren hildakoen alde eta 14:30ean bazkaria Sagasti berri jateketean.

### Ikastaroak

■ **Amasa-Villabona.** Amasako Iturri-goxo jateketea Jokin Zabala sukaldaritzako ikastaroa emango du Zumbeltz elkartearen abenduaren 11, 13 eta 18an, 17:30etik 19:00etara. Izen-ematea, udaldekuko kultura saileko bulegoan edo 943 691655 telefono zenbakian.

### Irteerak

■ **Leaburu-Txarama.** Abenduaren 13an Zumarragako Santa Luzia azokara joateko irteera antolatuta dute Udalak eta Uli Mankomunitatea. Izen-ematea, Txaramako kultur osasun gunean eta udaldekuan.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Lekunberri.** Mendia, M.I. Aralar kalea, 25. 112.  
■ **Tolosa.** Azpiroz, L. Amaro azokoa, 9. 943 675118.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



## Oargiren irteera Perdido mendira

**TOLOSA** ■ Oargi mendi elkarteak Pirinioetara irteera antolatu du datorren zuzirako, bihurtik igandera arte, hain zuzen. Perdido eta Marbore mendiak igoko dituzte eta Gorizko aterpean egingo dute lo. Izen-ematea, 637 830380 telefono zenbakian eman daiteke. Halaber, Candanchura eski


irteera antolatu dute abenduaren 28 eta 29rako. Eski alpinoa, iraupen esikia edo mendiko eskia egiteko aukera eskainiko dute bertan. Informazioa eta izen-ematea, 637 830380 edota 678 732579 telefono zenbakietan eman daiteke. HITZA

## A Agurrak



### Zorixonak!

**Leire Apezteza (Tolosa).** Gaur 2 urte. Zorixonak sorgina familiaren partetik.



### Zorixonak!

**Maria Karrera (Amezketeta).** Gaur 80 urte. Muxu handi bat zure familia, biloba eta birbiloben partetik.

agurrak

urtebetetzeak - urrezko ezteiak ezkontzak - jaioberriak jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaldekuko bulegoa

agurrak

denda

## Ametsetarako hitzak

ipuinen majian izkutatzen den euskal idazleen liburua... **15 €**

eskura ezazu

Durangoko Azokan,  
HITZAren postuan  
(Barrenkale, 73)



LIBURUAREN  
AURKEZPENA  
abenduaren 6an  
16:00etan  
Durangoko Azokako  
Elkartegian